

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## **NOGek modalitate anitzeko gammakamera bat eskuratu du miaketa onkologikoak, hezurretakoak, garunekoak eta kardiologikoak egiteko**

*Gailua lizitazio-fasean aurkitzen da gehienez 725.000 euroren truke, eta proba metabolikoak (SPECT) eta anatomikoak (TAC) konbinatzen ditu*

Asteartea, 2018.eko apirilak 3

Nafarroako Ospitale Guneko (NOG) Medikuntza Nuklearreko Zerbitzuak azken generazioko eta modalitate anitzeko gammakamera bat jarriko du aurten, beste prozesuen artean, gaixotasun onkologikoak, hezurretakoak, garunekoak eta kardiologikoak aztertzeke eta horien segimendua egiteko. Gailu berria lizitazio-fasean aurkitzen da, eta, proba metabolikoak (SPECT) eta anatomikoak (TAC) konbinatzeaz gain, hobekuntzak ekarriko ditu miaketen segurtasunari eta kalitateari dagokienean. Ekipamenduaren lizitazioaren zenbatekoa gehienez 725.000 eurokoa da, BEZ barne.

Medikuntza Nuklearreko espezialitateak gammakamerak irudiak hartzeko erabiltzen ditu, pertsona helduen eta pediatria-adineko pertsonen gaixotasun ezberdinak aztertzeke. Ekipoak gaixoari orokorrean zain barnean injektatutako gamma erradiazioa detektatu eta hiru dimentsioko irudia sortzen du aztertu nahi den organoaren jardueraren gainean.

Gailuak ia organo guztiak aztertzen ditu, plano morfologikoan nahiz funtzionalean. Era erraz eta azkarrean, minik gabe eta erreproduzitzeko moduan, gaixotasunen segimendua egiteko aukera ematen du, tratamendu ezberdinen gaineko erantzuna aztertzeke aukerarekin batera. Batez ere bihotzeko, hezurretako, prozesu onkologikoetako eta garuneko miaketa gammagrafikoak egiten dira.

### **Hobekuntzak segurtasunean, gardentasunean eta azkartasunean**

NOGeko gammakamera berriak 12 urtetik gora dituen SPECT gailua ordezkatu du. Azpimarragarriena da modalitate anitzeko ekipoa izango dela, miaketa-saio berean tomogammagrafia bat (SPECT) eta tomografia axial konputarizatu erradiologikoa (TAC) aldi batera egiteko aukera ematen duena, espazioaren plano guztietan (transaxial, koronal eta zeharka) ebakidura gainezarpenekin, espazioan gaixotasuna (tumoreak, lesioak, infekzioa,...) zehatz-mehatz aurkitzeke aukera eta guzti.

Teknologia aldetik, hobekuntzak eta eguneratzeak ditu irudiak hartzeko eta prozesatzeko programetan. Irudiaren bereizmena eta sentsibilitatea asko hobetu da, lesioak non dauden eta lesio gero eta txikiagoak argiago ikusteko aukera ematen baitu.

Gainera, miaketa egiteko denborak laburtzen ditu, eta hori oso garrantzitsua da mina duten gaixoentzat. Erradio-babesari dagokionean, gaixoarentzat erradiazio-dosia murrizteko programak ditu; beraz, hobekuntza eskaintzen du gaixoaren segurtasunaren ikuspegitik.

Gammakamera berria udan funtzionamenduan jartzea aurreikusten da. Gailua instalatzeko berrikuntzak egin behar dira egitura aldetik. Handiagoa denez, instalatuko den aretoko lurzorua indartu behar da eta hormak berunez zigilatu TAC egiterakoan sortutako erradiazioa saihesteko.

NOGeko Medikuntza Nuklearreko Zerbitzuak jada badu ezaugarri horietako beste gammakamera bat. 2017. urtean, SPECT proba egin zien 1.057 gaixori eta SPECT-TAC azterketa 1.160 gaixori.